

NORAEZEAN

“Izar uxo”

A maila prosa

I

HARMONIA

"Bizitzan atzera bueltarik ez dagoela ikasi nuen, bere funtsa aurrera jarraitzea baita. Bizitza norantza bakarreko bidea da."- Agatha Christie

Eguneko lehen argi izpiek Kiraren begiak ireki bezain pronto, irmotasuna egin zen neskaren jaun eta jabe. Aspaldiko partez ausart sentitzen zen, abenturarik arriskutsuena burutzeraz bultzatuko luketen esku ikusezinak gorputzari atxikita edukiko balitu lez.

Lau hilabete ziren Agerrera, Kaliforniako herri txiki batera, iritsi zenetik. Egunero gauza bera egin arren, ez zirudien bere bihotz ibiltaria aspertuta zegoenik. Horrenbeste gertakizunen ondoren, atsedena ere behar zuen gorputzak! Batzuetan, pertsona eta bizipenak atzean utzi izanaz damutzen zen, eta atzera egin nahi izaten zuen. Hala ere, bizitzan jorratutako bideak horraino eramanez ez zela kasualitate hutsa sinesten zuen Kirak, eta horregatik, ez zuen amore emateko asmorik.

Egun euritsu batean iritsi zen, iparra guztiz galdurik, haize boladek garraiatzen dituzten hostoen antzera. Ez zuen ezagunik, ezta helburu zehatzik ere, baina Agerreren xarmak erakarria sentitu zela zirudien. Herritarren begirada mesfidatiari kasurik egin gabe, herrian pixkanaka-pixkanaka bere arrastoa uzten hasi zen.

Goizero, gitarra hartu eta kalean kantari hasten zen. Hasieran, inor ez zen berarengana hurbiltzen, mespretxuz edo, baina asteak pasa ahala, agertarrentzat errutina bilakatu zen Kira kaleetan zehar abesten entzutea. Hala ere, entzule gutxi izatea ez zen neskaren kezka, bere buruarentzat jotzen baitzuen. Kantatzean, gorputza eta arima bat egiten nabaritzen zituen, ahotsaren bidez barreneko zauriak sendatzea lortuko balu bezala.

Larunbat horretan ere Van Halenen "Jump" abestu zuen lehenengo. Abestiak deskribatzen zuen "aurrera jarraitzeko indarra" lortzea zen Kiraren benetako helburua. Horrenbeste itxaron ondoren, jomuga gero eta gertuago ikusten zuen.

Bazegoen, ordea, inori kontatu nahi ez zion zerbait, Kira berari ere ahaztea gustatuko litzaiokeena. Orduan ere, askotan egiten zuen amets atzera begiratu eta zulo beltzean eroriko zela berriro.

II

AMESGAIZTO BIHURTUTAKO AMETSAK

"Nire mina itotzen saiatu nintzen, baina igeri egiten ikasi zuen."- Frida Kahlo

Eskuekin hazitako sabela ukitzean, bi malko isuri ziren Kiraren begietatik. Asteetan zehar ezkutuan gordetako sekretua agerian geratu zen. Bere gurasoek, Erickek, herri osoak, denek... denek zuten dinamita bezain azkar zabaltzen ari zen txutxu-mutxuaren berri.

Bere garaian ilusio handiz zintzilikatutako argazkia errotik atera eta zakarrontzira bota zuen. Erickek berria jakitean, arrastorik utzi gabe alde egin zuen, inoiz existitu ez balitz bezala. Akats bat egin zuen, ordea: ezabaezina zen aztarna loratu zuen Kiraren sabelaldean. Ez zion inoiz barkatuko zama horri uko egin izana, "betiko batera" gogoratzen?

Hori guztia gutxi balitz bezala, gurasoek aukerarik onena bere barneko bizitza akabatzea zela zioten. Kirak, ordea, bere bizimodua erabat aldatuko bazuen ere, ez zion bizkarrik eman nahi egindakoari. Gainera, sortzen ari zen pertsonatxoari ezingo liokeela minik egin zioen; harekin bere izatearen zati bat ere joan egingo baitzen.

Bere buruarekin etengabeko borroka zuen. Alde batetik, gurasoek esandakoa egin, eta etxeko berotasunean geratu nahi zuen, ezer gertatu ez balitz bezala. Haatik, aurrerapauso baten beharra sentitzen zuen, bere erabakiak hartu eta haizea bezain libre nabigatzeko.

Azkenean, bizkarra eman zion herritik alde egitea erabaki zuen, inoiz ez itzultzeko asmoz, gainera. Gurasoek maite zuten, baina ezin zuten ulertu ez zela euren haur txikia izango betiko. Horregatik, goizean goiz, inork ikus ez zezan, motxila hartu eta etxetik atera zen, bidean malkoak isuriz.

III

ZULO BELTZEAN BEHERA

"Zuloan behera, arima galtzen. Hegan egin nahiko nuke, baina hegoak moztu dizkidate." – *Alice In Chains*

Gauaren iluntasunean murgilduta zegoen Kira. Hotz egiten zuen eta isiltasuna zen nagusi. Ematen zuen pauso bakoitzarekin milaka orratzen zitzadak sentitzen zituen oin puntetatik ileraino. Haurra handiagoa egin ahala, bizkarra gehixeago okertzen zitzaion, eta hanketan gero eta indar gutxiago nabari zuen.

Etiket hartutako janaria aspaldi agortu zitzaion, beraz, jatetxe eta supermerkatuen inguruko zaborrontziak miatu behar izaten zituen. Egoera zail horren ondorioz, nekatuta zegoen, baina gogor eutsi behar zion.

Bat-batean, emakume bat ikusi zuen berarengana gerturatzen. Alde batetik bestera balantzaka zebilen. Beldurrak hartu zuen, baina berehala uxatu zuen emakumearen aurpegi irribarretsua ikustean, lagunkoia zirudien.

Urrutitik zaharra zela iruditu arren, aurpegiko zimur ezak bere benetako adina ezagutarazten zuen, hogeit bat izango zituen. Halako batean garrasika hasi zen: *"Ea, eaaa, zer daukagun hemen... bisitan etorri al haiz? Hara, haurdun hago eta! Hau bai nobedadea! Hi ere putetxetik botatako emagaldua haiz, ezta? Kar, kar, kar!"*

Mozkorrak esandako hitzak entzun bezain pronto, negar zotinka hasi zen Kira, bere barneko pentsamendu ilun guztiak erro-errotik atera baitzizkion. Ihes egin nahi zuen, baina ez zuen nahikoa indarrik, lurrean finkatutako harrizko estatua zirudien. Ezustean, emakumeak eskua luzatu zion, laguntzeko asmoz edo. Ez zen gehiegi fidatzen, baina ordurako etsi zuen eta gaua igarotzeko tokiren bat behar zuen...

"Ikusiko dun nola joango zaizkinan min guztiak honekin!" esan zion Gracek xiringa zainetan sartzen zion bitartean. Bide itsu batean zeuden, euren antzera gizarteak abandonatutako beste pertsona batzuekin.

Droga laba bezala zabaldu zitzaion gorputzean zehar, eta ezer egiteko astirik izan gabe, emozioen eztanda sentitu zuen barnean. Indarra berreskuratu eta irribarrea itzuli zitzaion, baina irtetea kostako zitzaion zulo beltzean sartu zen.

IV

IHESEAN

"Ez dakite nor zaren, zauriak baino ez dituzte ikusten. Ez dute zure bihotzeko aingerua ezagutzen." - Sixx: AM

Eguerdi partean, sabelaldean presioa nabaritu eta esnatu egin zen Kira. Ez zegoen Graceren arrastorik, eta, gainera, ez zuen ezagutzen herriaren alderdi hori. Zorabiatuta sentitzen zen eta zutik jartzeko bi saiakeretan huts egin zuen. Erabat ihartuta zegoen eta heroinak beregan zuen eragina gero eta handiagoa zen. Tentazioaren munduan murgildu, eta inoiz aterako ez zen beldur zen. Hala ere, bere barneko borroka galduta zuela sentitzen zuenez, ezinbestekoa zitzaion bost bat orduz pentsamendu horietatik urrun egotea. Hain zuzen ere, horixe zen drogak eskain diezaiokeena.

Zutik jartzea lortu zuenean, hankartea odolduta sentitu zuen. Kosta egin zitzaion zer gertatzen ari zen ulertzea, eta, jabetu zenerako, indar guztiek alde egin zioten. Lurrera erori eta bertan geratu zen, begietatik etengabeko malko jarioa zeriola. Zoritxarra beste ezer ez zuela transmititzen pentsatu zuen, eta inguruko guztiei min egiten baino ez zekiela.

Orduak eman zituen kale kantoi horretan botata, baina ilunabarra heldu zenean, bertatik mugitzeko erabakia hartu zuen. Zeruari so, izar uxoa pasatzen begiztatu zuen, eta alabatxoa (senak neska izango zela esaten zion) berak baino hobeto zaintzeko eskatu zien aingerutxoei. Erabat atsekabetuta zegoen, horretan ere huts egin baitzuen.

Esku hutsik eta bihotza erdibituta, bide berri bati ekin zion: atzera begiratu gabe, bere minak ezagutzen ez zituen herri baten bila.

V

ATE BERRIAK

"Ez dago biderik, bidelari, ibiltzean sortzen da bidea" – Antonio Machado

Bisitatu zituen herri gehienak erdi hutsik zeuden, biztanle gehienak oporretan egongo baitziren ziurrenik, udako egun beroenak hondartza inguruan aprobetxatzeko. Patxada horixe maite zuen Kirak herrietako zirrikituak inoren begiradatik at ezagutu eta gozatzeko.

Herri xume xarmant baten kaleetan barrena zebilela, agure batek berarengana gerturatzeko eskatu zion. Ez zen konturatu gerturatu zitzaionik ere, erakusleihoari begira liluraturik baitzegoen. Inguruari erreparatu eta zakurtxabola gogorarazi zion kartoi multzoa ikusi zuen ondoko atarian, eskalea zen zalantza izpirik gabe. Halere, ez zuenez lapurtzeko gisako ondasunik, gizonari jarraitzea erabaki zuen.

Traste guztiak pilatuta zituen txokora eraman zuen Kira ile zuri luzeak aurpegiko zimurrak tapatzen zizkion agureak. Urteetan zehar bildutako oroitzapenak ziren, eta banan-banan bere altxor txikia erakusten hasi zitzaion. Ez zion hitz bakar bat ere esan, baina ez zen beharrezkoa kontatu nahi ziona ulertu ahal izateko. Halako batean, ondoan neskabila bat zuen gizon baten argazkia erakutsi zion. Agurea eta bere alaba zirela imajinatu zuen, eta berehala negar zotinka hasi zen, berearekin horrelako argazkirik ezingo zuelako inoiz egin.

Hilabeteetan barnean gordetako samina askatu zuen eskaleari bere historia kontatzean. Ezer esan gabe jarraitzen bazuen ere, haren begirada lasaigarriak kontsolatu egiten zuen. Gainera, kontakizuna amaitzean, ezpainetan irribarrea marraztu zion, neskaren mina ulertuko balu lez. Jarraian, argazkia eskuetatik kendu eta gitarra zahar bat eskaini zion. Urte mordoa izan arren, txukun zegoen instrumentu eder hura. Eskuekin leunki ferekatu ondoren, itzultzeko luzatu zion. Eskaleak, ordea, ezezkoa egin zion buruarekin. Horrelako oparia jasotzeak erabat txunditu zuen Kira, itxuraz ezer eskaintzeko ez zuenak aberatsenek ere eman ezin ziezaioketena eman baitzion: sufrimenduaren mundutik ateratzeko giltza.

Luzaroago geratzea gustatuko litzaiokeen arren, lehen izarrak zeruan ikusgarri egin zirenean, agur esan zion Kirak arloteari. Zama astuna atzean utzita, sortzeke zegoen bideari ekin zion berriro, bihotza etorkizunaren alderik ederrena ezagutzeko esperantzaz josita.